

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 346/2020 Erabakia, uztailaren 21ekoa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiak kontribuzio berezia ezartzeari 2020ko ekitaldirako, su itzaltze eta salbamendu zerbitzua jarri, hobetu edo handitzeko

Abenduaren 20ko 16/2010 Foru Arauak, su itzaltze eta salbamendu zerbitzua jarri, hobetu edo handitzeko Arabako Foru Aldundiaren kontribuzio berezia arautzen duenak, bere 8.2 artikuluan xedatzen du Foru Gobernu Kontseiluak onetsi behar duela kontribuzio berezia ezartzen eta antolatzen duen erabakia, zeren eta, urtero sortzen den zerga bada ere, ezinbestekoa baita zehaztea ekitaldi bakoitzean kuotak kalkulatzeko erabiliko den zerga oinarria.

Kontribuzioaren zerga gaia da subjektu pasiboek onura lortzea obrak egiteagatik edo Arabako Foru Aldundiak Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzua jarri, hobetu eta handitzeagatik. Zerga oinarria da zerga gaia egiteagatik Arabako Foru Aldundiak guztira urtero jasaten duen kostua. Sortzapena, aurrez ikusitako kostuari lotuta, ekitaldi bakoitzeko urtarilaren 1ean izango da; hain zuzen ere, Arabako Lurralde Historikoaren aurrekontuei buruzko urteroko foru arauan obrak gauzatzeagatik edo Arabako Foru Aldundiak prebentzio, su itzaltze eta salbamendu zerbitzuak jarri edo handitzeagatik; ondoren, egokia bada, likidatu egingo da.

Kontuan izanik abenduaren 17ko 24/2019 Foru Arauan (Arabako Lurralde Historikoaren 2020rako aurrekontua gauzatzeari buruzkoa) ezarritakoa, 2020ko ekitaldi honetarako aurreikusitako inbertsio garbien kostua 911.489,00 euroan zehaztu da.

Subjektu pasiboak dira, bereziki onuradun direlako, Arabako lurralde historikoan, Gasteizko udalerrian izan ezik, zenbait arrisku babesten dituzten polizak kontratatuta dauzkaten aseguru etxeak.

Arabako lurralde historikoan aurre-aurreko urtean batu diren primen proportzioan banatuko dira aipatu diren arriskuak babesten dituzten aseguru etxe edo erakundeei eskatu ahal zaizkien kuotak, goi muga batutako primen ehuneko 5 delarik. Kalkulu horretatik kanpo geldituko dira Vitoria-Gasteizko udalerrian arrisku horiek estaltzen dituztenak.

Arriskuak babesten dituzten aseguru etxe edo erakundeen elkarteekin hitzarmenen bidez bildu ahal da kuota, behar bezala baimendutako ordezkariak aurretik eskatuta. Hasiera batean, kudeaketa erraza zelako eta diru sarreretan egonkortasuna zegoelako, formula hori da biltzeko egokientzat jo zena.

Hortaz, une honetan izapidetu gabe dagoen foru erabaki baten bidez, onetsiko da 2020-2023 laurtekorako hitzarmen bat izenpetzea suak itzaltzeko zerbitzuetan laguntzeko Hitzarmenak Kudeatzeko Erakundea EITrekin eta haren administratzaile bakarra den Aseguru eta Berraseguru Entitateen Espainiako Elkartearekin (hemendik aurrera, UNESPA), hurrengo ekitaldietarako luza daitekeelarik.

Dena den, aseguru etxe guztiak UNESPAren barruan ez daudenez gero, eskatu behar zaie 16/2020 Foru Arauan aipatutako arrisku babestu horiek dituzten eta hitzarmenak kudeatzeko erakundekoak ez diren aseguru etxeei aurkez dezatela 2019an bildutako primen zenbatekoaren aitorpena.

Ondoren, jasotako argibideetan oinarrituta, aipatutako foru arauan xedatutakoaren arabera (Arabako Foru Aldundiaren hasierako aurrekontua, primen proportzioa eta primen ehuneko 5),

likidazio proposamena bidaliko zaie aipatutako aseguru etxeei, nahiz eta UNESPAren bitartez bildu ahal izan, aseguru etxeei behin-behineko likidazioak bidali baino lehen, eta horretarako ahalmena ematen zaio Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuari.

Horregatik, Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Arabako Foru Aldundiak kontribuzio berezia ezartzea 2020ko ekitaldirako, su itzaltze eta salbamendu zerbitzua jarri, hobetu edo handitzeko, zerga oinarria edo ekitaldian aurreikusitako inbertsioen kostua 911.480,00 euro delarik.

Bigarrena. Lurralde Orekaren Saileko diputatuari ahalmena ematea likidazioa egin dezan, hala badagokio, hitzarmenak kudeatzeko erakundeari atxikitako konpainiek sortutako aseguru sariak oinarri hartuz, jarraian UNESPArekin onetsiko den hitzarmenaren arabera.

Hirugarrena. Hitzarmenak kudeatzeko erakunde horretakoak ez diren, foru arauan aipatutako arriskuak babesten dituzten eta, Gasteizko udalerrian izan ezik, Arabako lurralde historikoan diharduten aseguru etxeei eskatzea 2019an bildutako sarien zenbatekoaren aitortpena aurkez dezatela.

Laugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Bosgarrena. Jakinarazten zaizun erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean eta haren aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diozu Arabako Foru Aldundiko Foru Gobernu Kontseiluari, hilabeteko epean, erabaki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, kasuan kasuko jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 21a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua

IRMA BASTERRA UGARRIZA

Lurralde Orekaren zuzendaria

JESUS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA